

ESP. KODEA
CÓD. EXP.

2025MUBO0003

ESPEDIENTEA EXPEDIENTE	BOLSA DE EXPEDIENTES MUSIKA ESKOLA MUSIKA ESKOLAKO ESPEDIENTEEN POLTSA
TITULARRA TITULAR	MUSIKENE
TOKIA LUGAR	LOINAZKO SAN MARTIN PLAZA BEASAIN

IGARTZA MUSIKA BEKA

2025-2026 IKASTURTERAKO DEIALDIA

OINARRIAK

Zioen azalpena

Beasaingo Udalaren barruan dagoen Musika Eskola azpiarloa (lehen erakunde autonomoa zena), aurrerago adieraziko den helburuarekin, 2016az geroztik ari da Oinarriak onartzen eta "Igartza Musika Beka" izeneko beka emateko deialdi publikoa egiten.

2024-2025 ikasturterako egindako deialdiarekin, Euskal Autonomia Erkidegoan musikaren kultura eta zabalkundea sustatzen lagundu da, eta egiaztatu da kezka musikala dagoela, honako hauek kontuan hartuta:

- Lehiaketan 45 parte-hartzaile izan ziren.
- Beka emateko eskainitako entzualdi irekietara eta gero bekadunek emandako kontzertuetara bertaraturako jende kopurua aurreikusitakoa izan zen.

Beka hauek arautzen dituen esparru juridikoa, funtsean, honako hauetan dago jasota:

- Euskadiko Toki Erakundeei buruzko apirilaren 7ko 2/2016 Legeak, 17.1.20) artikuluan, udalerriaren eskumen propio gisa aurreikusten du: *Kultura eta*

IGARTZA MUSIKA BEKA

CONVOCATORIA CURSO ACADÉMICO 2025-2026

BASES

Exposición de motivos

La subárea de Musika Eskola (antes organismo autónomo) perteneciente al Ayuntamiento de Beasain, con el objetivo que más adelante se indica, viene desde el año 2016 aprobando Bases y efectuando la correspondiente convocatoria pública para la concesión de la beca denominada: "Igartza Musika Beka".

Con la convocatoria realizada para el curso **académico 2024-2025**, se ha contribuido al logro de fomentar la cultura y difusión de la música en el País Vasco y se ha constatado que existe una inquietud musical, teniendo en cuenta que:

- El número de participantes en el concurso fue de 45.
- La asistencia del público a las audiciones abiertas ofrecidas para la concesión de la beca así como a los conciertos emitidos posteriormente por parte de los becados/as fue la esperada.

El marco jurídico que regula las presentes ayuda se encuentra recogido fundamentalmente en:

- La ley 2/2016 de 7 de abril de instituciones locales de Euskadi, en el artículo 17,1.20) prevé como competencias

<i>kultura-jarduerak antolatzea eta sustatzea, eta erabilera publikoko kultura-ekipamenduak kudeatzea.</i> - Dirulaguntzei buruzko 38/2003 Lege Orokorra eta hura garatzen duen erregelamendua, 887/2006 Errege Dekretuaren bidez onartua. - Dirulaguntzak arautzen dituen Udal Ordenantza (GAO, 2018/06/14). - Beasaingo Udalaren 2023-2025eko dirulaguntzen plan estrategikoa (2. helburu estrategikoa: <i>Udalerriko ekintza kulturalak babestea</i>. 2.2. lerroa: <i>kultur sorkuntza sustatzea</i>).	propias del municipio: <i>Ordenación y promoción de la cultura y de actividades culturales y gestión de equipamientos culturales de uso público.</i> - La Ley 38/2003 general de subvenciones y el reglamento que la desarrolla, aprobado por el Real Decreto 887/2006. - La Ordenanza Municipal reguladora de Subvenciones (BOG, 14/06/2018). - Plan estratégico de subvenciones 2023-2025 del Ayuntamiento de Beasain (Objetivo estratégico 2: <i>Fomentar la actividad cultural en el municipio</i>. Línea 2.2.: <i>Promoción cultural en el municipio</i>).
Lehena. Bekaren xedea Beka honen helburua Euskal Herrian kultura sustatzea eta musika hedatzea da, bereziki goi mailako musika-hezkuntzaren esparruan.	Primera. Objetivo de la Beca El objetivo de este Beca es fomentar la cultura y la difusión de la música en el País Vasco, especialmente en el campo de la educación musical superior.
Bigarrena. Beka-motak Bi beka ezarriko dira: • Musikeneko Goi Mailako Musika Ikasketetako ikasleentzat. • Musikeneko Master ikasleentzat.	Segunda. Tipos de Becas Se establecen dos becas: • Una destinada a alumnado de Grado de Música en Musikene. • Otra destinada al alumnado de Máster de Musikene.
Hirugarrena. Parte hartzeko baldintzak Deialdia Musikenen, Euskal Herriko Goi Mailako Musika Ikastegian, Interpretazio espezialitateetan (klasikoa edo jazz) matrikulatuta dauden eta ikasketak egiten ari den edozein adin edo nazionalitateko parte hartzailerik dago irekia.	Tercera. Requisitos de participación El concurso está abierto a participantes de todas las edades y nacionalidades que estén matriculados/as y estén cursando sus estudios en las especialidades de Interpretación (Clásico y Jazz) en Musikene,

Musikenen Goi Mailako Titulazioaren laugarren urtean eta Interpretazio Masterretan (Orkestra Ikasketen Masterrak, Musika Interpretazio Masterra eta Jazz-Interpretazio Masterra) matrikula egina duten ikasleek izango dute saria jasotzeko aukera, hurrenez hurren. Bekak helburu dituen ikasketak 2025/2026 ikasturtean egin beharko dira. Eskatzaileek curriculum labur bat eta programa libre baten egitaraua eman beharko dituzte, gehienez hamar minutuko iraupenekoak. Egitarauak barne hartzen dituen bi obra gutxienez, edo obren mugimenduak, estilo ezberdinetakoak izan beharko dira. Hala behar duten obrak laguntzaile batekin jo beharko dira, hautagaiek eraman beharko dute. Bekara aurkezteak oinarriak osotasunean onartzen direla esan nahi du.	Centro Superior de Música del País Vasco. Podrán optar al premio el alumnado matriculado en Musikene en el cuarto curso de Grado y en los Másteres de Interpretación respectivamente (Máster de Estudios Orquestales, Máster de Interpretación Musical y Máster de Interpretación- Jazz). Los estudios para los que se solicite la Beca se deberán realizar en el curso académico 2025/2026. Los y las solicitantes deberán aportar un breve curriculum y un programa con un repertorio libre de una duración máxima de diez minutos. El programa deberá estar constituido por al menos obras, o movimientos de obras, de diferentes estilos. Las obras que así lo requieran deberán ser ejecutadas con acompañante y los candidatos y candidatas deberán aportar su propio partenaire. La presentación a la Beca implica la íntegra aceptación de las bases.
Laugarrena. Eskaerak <u>Epea</u>: Eskaerak jasotzeko epemuga 2025ko azaroaren 7a izango da. <u>Aurkezteko tokia</u>: Eskaerak master@musikene.eus helbidera bidaliko dira Master ikaslea bada eta mgenua@musikene.eus Goi Mailako ikaslea bada. Horretarako oinarri hauetako l. eranskinean azaltzen den eskaera-orria bete eta eskatzen den dokumentazioa atxiki beharko da.	Cuarta. Solicitudes <u>Plazo</u>: La fecha límite de recepción de las solicitudes será el 7 de noviembre de 2025. <u>Lugar de Presentación</u>: Las solicitudes se enviarán por correo electrónico a: master@musikene.eus el alumnado de Máster y a mgenua@musikene.eus el alumnado Grado. En dicho correo se adjuntará cumplimentado el formulario de inscripción que se encuentra anexo a estas bases, así como la documentación requerida.

Bosgarrena. Epaimahaia <u>Osaketa.</u> Berariazko epaimahaia izendatuko da, gutxienez ospeko hiru musikariez osatutakoa. Musikenek izendatuko du Beasaingo Udalaren onarpenarekin eta epaimahaian ere Udalaren ordezkari bat egongo da. <u>Funtzioak:</u> • Epaimahaiak hautagaiei elkarrizketa egiteko ahalmena izango du beraien musika-egitasmoa ezagutzeko helburuz. • Epaimahaiak, kontzertu beraz gain, bere balorazio irizpideetan kontutan izango ditu hautagaien meritu akademiko eta artistikoak. <u>Erabakiak:</u> • Bekak Beasainen jendaurrean egingo den kontzertu baten ondoren erabakiko dira, 2025ko azaroaren 29ean. Izena eman duen ikasleari eguna eta ordua gutxienez hamar eguneko aurrerapenaz jakinaraziko zaio. • Epaimahaiaren erabakiak apelaezinak izango dira. • Epaimahaiak, antolakuntzarekin adostuta, sariak hutsik utz ditzake. Berdinketa gertatuz gero, lehendakariak kalitatezko botoa izango du.	Quinta. Tribunal <u>Constitución.</u> Se nombrará un jurado específico compuesto por al menos tres músicos de reconocido prestigio que será nombrado por Musikene con la aprobación del Ayuntamiento de Beasain, además de un miembro en representación del Ayuntamiento. <u>Funciones:</u> • El jurado se reserva la facultad de entrevistar a los/as candidatos/as con el fin de conocer su proyecto musical. • El tribunal, además del concierto en sí mismo, en sus criterios de valoración tendrán en cuenta los méritos académicos y artísticos de los/las candidatos/as. <u>Decisiones:</u> • La concesión de las becas se dirimirá tras un concierto abierto al público que tendrá lugar en Beasain el 29 de noviembre de 2025. El alumnado inscrito será avisado de la fecha y horario de celebración con un mínimo de diez días de antelación. • Las decisiones del jurado serán inapelables. • El jurado, de acuerdo con la organización, podrá declarar los premios desiertos. En caso de empate, el/la
---	--

		presidente/a tendrá voto de calidad.
Seigarrena. Sariak Bi motatako sariak izango dira: • 3.300 €ko beka Master ikasleentzat • 2.200 €ko beka Goi Mailako ikasleentzat.		Sexta. Premios Se establecen dos tipos de premios: • Una Beca dotada con 3.300€ para alumnado de Máster • Una Beca dotada de 2.200€ para alumnado de Grado.
Beka ordaintzeko Alkateak dagokion Ebazpena emango du, baina aldez aurretik udal zerbitzuek egiaztatuko dute onuradunek ondorengo baldintzak betetzen dituztela: a) 38/2003 Legeak (Diru-laguntzen Lege orokorrak) 13. artikuluan aurreikusten dituen debekuetako batean ere sartuta ez egotea. b) Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaren egunean egotearen egiaztagiria eta Beasaingo udalaren zorduna ez izatea.		Para el pago de la beca se dictará por parte de Alcaldía la correspondiente Resolución, pero previamente los servicios municipales comprobarán que los/as premiados/as cumplan las siguientes condiciones: a) No estar incurso en ninguna de las circunstancias impeditivas contempladas en el artículo 13 de la Ley 38/2003, General de Subvenciones. b) Estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones fiscales y de la Seguridad Social y no tener deudas con el Ayuntamiento de Beasain.
Udalak, baldintza horiek betetzen direla bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko ditu, sariduna horren aurka azaldu ezean. Kasu horretan edo Udalarekin zerikusirik ez duten arrazoiengatik ezin bada informazioa lortu esandako moduan, saridunari eskatuko zaio adierazitako betebeharrak betetzen dituela egiaztatzen duten ziurtagiriak aurkezteko.		El Ayuntamiento verificará el cumplimiento de esos requisitos a través de plataformas corporativas de intermediación (NISAE) o de acceso público, salvo que el/la premiado/a se oponga a ello. En ese caso o en el supuesto de por circunstancias ajenas al Ayuntamiento no pudiera obtenerse la información del

		modo indicado, será el/la premiado/a quien deba presentar las certificaciones acreditativas del cumplimiento de las obligaciones indicadas.
Zazpigarrena. Ordainketa Bekaren zenbatekoa bi epetan jasoko da: • Lehenengoa “Igartza Musika Beka” ematearekin batera. • Bigarrena kontzertua egin ondoren. Sariei legeak ezartzen dituen zerga atxikipenak ezarriko zaizkie.		Séptima. Pago La cuantía de la Beca se percibirá en dos plazos: • El primero de ellos con la concesión de la “Igartza Musika Beka”. • El segundo plazo tras la realización del concierto. Los premios estarán sujetos a las retenciones tributarias establecidas por la ley.
Zortzigarrena. Sarituen betebeharrak Irabazleek ezingo dute hurrengo deialdietara aurkeztu. Sari banaketan derrigorrezkoa da partaideen presentzia, saria jaso ahal izateko ezinbestekoa. Oinarri hauetan azaltzen diren baldintzak betetzea. Emandako saria idatziz onartzea, eman izanaren jakinarazpen ofiziala gutun batean jaso ondoren. Onarpena gutunean adierazten den epea baino lehen gauzatzen ez bada Bekari inplizituki uko egiten diola ulertuko da. Bekak helburu dituen ikasketetan Musiken matrikula egina duela egiaztatzea eta probetxuz egitea aipatutako ikasketak. Honetarako, Musikenek ziurtagiria emango du, non bi		Octava. Obligaciones de los/las premiados/as. Los/las ganadores/as no podrán presentarse a las siguientes convocatorias. La presencia de los participantes en la entrega de premios es obligatoria, imprescindible para recibir el premio. Cumplir las condiciones que figuran en estas bases. Aceptar por escrito el premio concedido, una vez remitida por carta la comunicación oficial de la concesión. De no producirse esta aceptación antes de la fecha indicada en la comunicación se entenderá como una renuncia implícita a la Beca. Acreditar la matriculación en

baldintzak egiaztatzen diren. Bekadunek Igartzako Jauregian edo Beasaingo beste edozein lekutan doako kontzertu publiko bat emango du Beka honen antolakuntzak ezartzen duen datan. Bekadunen curriculumean derrigor aipatu beharko da honako testua: Beasaingo Udalaren "Igartzza Musika Beka".	Musikene en los estudios para los que se solicita la Beca y cursar los mismos con aprovechamiento. A tal objeto, Musikene emitirá un certificado en el que ambas condiciones se constaten. Los/as becados/as se comprometen a ofrecer un concierto público gratuito en "Igartzako Jauregia" o cualquier otro lugar de Beasain en la fecha que determine la organización de la presente Beca. Será obligatorio mencionar en el CV de los/las becados/as la leyenda: "Igartzza Musika Beka" del Ayuntamiento de Beasain.
Bederatzigarrena. Beka bueltatzea Beasaingo Udalak eta Musikenek beka kentzeko aukera izango dute ezarritako betebeharrak betetzen ez badira.	Novena. Devolución de la Beca El Ayuntamiento de Beasain y Musikene podrán retirar la beca si no se cumplen las obligaciones establecidas.
Hamargarrena. Oinarriak argitaratzea Oinarri hauek onartu eta gero BDNS delakoa bidaliko da, ondoren Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu daitezten. Halaber, Beasaingo Udalaren webgunean argitaratuko dira eta Musikenera era bidaliko dira beraien web orrian argitaratu ditzaten.	Décima. Publicación de las Bases Una vez aprobadas estas bases se remitirá el BDNS para su posterior publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa. Asimismo, se publicarán en la página web del Ayuntamiento de Beasain y se enviarán a Musikene para su publicación en su página web.
Hamaikagarrena. Datuen babesa. Eskatzaileen datuen tratamendua abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren arabera izango da.	Decimoprimer. Protección de datos. El tratamiento de los datos de los solicitantes se ajustará a la Ley Orgánica 3/2018, de 5 de diciembre.
Hamabigarrena. Aplikatuko den araudia. Deialdi honetan aurreikusten ez den orotarako 39/2015 Legea, urriaren 1ekoa, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearena aplikatuko da.	Decimosegunda. Normativa de aplicación. En todo lo no previsto en la presente convocatoria será de aplicación la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Hamahirugarrena. Ebazpena eta helegiteak. Deialdi honek administrazio-izaera dauka, eta, horrenbestez, Udalak du ahalmena hala hori lehenik interpretatzeko nola haren aplikazioan eta ebazpenean sor daitezkeen gorabehera oro ebazteko. Honako oinarri hauen aurka berraztertze errekurtsoa aurkez daiteke, hilabeteko epean, deialdia onartu duen organo eskudunaren aurrean; bestela, zuzenean kontra egin daiteke bi hilabeteren buruan Administrazioarekiko Auzi Epaitegiaren aurrean. Epeak oinarri hauek argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira zenbatzen bi kasuetan.	Decimotercera. Resolución y recursos. La presente convocatoria tiene naturaleza administrativa, por lo que el Ayuntamiento está facultado para interpretarla en primer lugar y resolver cuantas incidencias puedan surgir en su aplicación y resolución. Contra las presentes bases podrá interponerse, en el plazo de un mes, recurso de reposición ante el órgano competente que haya aprobado la convocatoria, o, impugnarla directamente en el plazo de dos meses ante el Juzgado de lo Contencioso Administrativo. Los plazos se contarán en ambos casos a partir del día siguiente al de la publicación de las presentes bases.
---	--

IGARTZA MUSIKA BEKA: ESKABIDEA/SOLICITUD

DATU PERTSONALAK DATOS PERSONALES:

Izena/Nombre	Abizenak/Apellidos:	
Helbidea/Dirección:		
Udalerría/Población:	Lurraldea/Provincia:	K.P.:
Telefonoa/Teléfono:	Jaiotza data/Fecha de nacimiento:	
Nazionalitatea/Nacionalidad:	E-mail:	
NAN-Erresidentzia txartela/D.N.I. - Tarjeta de Residencia:		

DATU AKADEMIKOAK:/DATOS ACADÉMICOS:

1. 2025/2026 ikasturterako zein espezialitate instrumentaletan, titulazioa eta ikasturtetan egin duen matricula: Especialidad instrumental, titulación y curso en el que está matriculado/a para el curso académico 2024- 2025:
2. Instrumentu nagusiko irakaslea: Profesor/a de instrumento principal:

Hautaketa proba egiteko behar tekniko eta materialak:
Necesidades técnicas y materiales para la realización de la prueba de selección:

Joko den erreperitorioa (gehienez 10 min.)
Repertorio a interpretar (max. 10 min.)

1.-
2.-
3.-
4.-

ZIRIBORROA - BORRADOR

EMATEN DEN DOKUMENTAZIOA (X-z markatu ematen den dokumentazioa)
DOCUMENTACIÓN QUE SE APORTA (marcar con una X la documentación que se
aporta)

- ☐ NAN FOTOKOPIA EDO ERRESIDENTZAI BAIMENA /FOTOCOPIA DNI O PERMISO RESIDENCIA
- ☐ CURRÍCULUM VITAE
- ☐ IRAKASLEAK SINATUTAKO ABALA / FIRMADO POR EL/LA PROFESOR/A DE ESPECIALIDAD
- ☐ TITULUAK, IKASKETA ZIURTAGIRIAK, TXOSTENAK ETA BERE BALORAZIOARAKO
INTERESEKOAK IRIZTEN DITUEN JARDUERAK

TÍTULOS, CERTIFICADOS DE ESTUDIOS, INFORMES Y ACTIVIDADES QUE SE CONSIDEREN DE
INTERÉS PARA SU VALORACIÓN

Zerga-betebeharretan eta Gizarte Segurantzaz egunean egotearen egiaztagiria eta Beasaingo
udalaren zorduna ez izatearen baldintzak betetzen direla bitartekaritza-plataformen (NISAE) edo
sarbide publikoko plataformen bidez egiaztatuko ditu Udalak.

El Ayuntamiento el cumplimiento de estar al corriente en el cumplimiento de las obligaciones fiscales y de
la Seguridad Social y no tener deudas con el Ayuntamiento de Beasain a través de plataformas
corporativas de intermediación (NISAE) o de acceso público.

- ☐ Onartzen dut / Estoy de acuerdo.



Beasaingo
Udala

